

Gazteen talentua sustatzen duten lan-esperientziak

Gurutze Gorriak “GO gara, aukeren belaunaldi bat” ekitaldia aurkeztu du

- Gurutze Gorriak langabeei berrakitatzeko eta beren lan-ibilbidearekin berriz ere konektatzeko aukera eman nahi die.
- Gazteen eta enpresen arteko elkarrizketarako gune bat sortzea da helburua, bi munduen arteko esperientzia eta ideiak partekatuz.

(Gasteiz, 2018ko irailaren 04a). Duintasunez bizi ahal izateko diru-sarrerak emango lituzkeen enplegu baten faltan zaudenean, beste arazo batzuk agertzen dira berehala, hala nola estimua galtzea, behin eta berriz negatibotasuna hautematea edota errealitatea desitxuratzea, “orain arte egin dudanak ez du ezertarako balio”, “adinagatik ez naute hartuko”, “egungo merkatuak ez du nire lan-esperientziaren beharrik” pentsatuz, eta abar. Horren guztiaren ondorioz, ekonomikoki eta sozialki delikatuak diren egoerak sortzen dira. Pertsona horiek nora ezean sentitzen dira, zer egin zein nora edo norengana jo ez dakitela. Horretarako sortu zen, 2000. urtean, Gurutze Gorriaren Enplegu Plana, hain zuzen ere jendeari lana bilatzeko laguntza emateko, aldatzen ari den lan-merkatu honetan bakoitzak bere posizioa hobetzeko aukera izan dezan.

Garatzen ari diren lana hobetzeko, irailaren 6an Euskadiko Gurutze Gorriak “**GO gara, aukeren belaunaldi bat**” antolatuko du Vital Fundazioaren Luis de Ajuria aretoan, Gasteizen, **gazte eta enpresen arteko elkarrizketarako gune bat sortzeko helburuarekin bi munduen artean esperientzia eta ideiak partekatuz.**

Euskal Erakundeak ordezkatzuz ekitaldira bertaratuko dira Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburu **Beatriz Artolazabal**, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarteratzeko zuzendaria **Amaia Arteaga**, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapena eta Foru Administrazioari Arabako foru-diputatu **Cristina González** eta Gasteizko Udalaren Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkari **Nerea Melgosa**.

“GO GARA, AUKEREN BELAUNALDI BAT” EKITALDIA

Eguna: 2018ko irailaren 6a, osteguna

Ordua: 10:00h

Lekua: Luis Ajuria aretoa. Alaba Jenerala 7. Gasteiz.

Ekitaldiaren burua: Iñaki Irusta Bilbao jauna, Euskadiko Gurutze Gorriko lehendakari autonomikoa.

Álvaro García Serrano
Komunikazio Arduraduna

Arabako Gurutze Gorria
Tlfn. 945 22 22 22 luzapena 8 | 678 40 14 43 | comunicacionalava@cruzroja.es